

# Tabua euskal literaturan

## Ur Apalategi



(Paris, 1972). Zuzenbidean eta Letra Frantsesetan lientziaduna eta Euskal filologian doktore. Euskal literaturako irakasle titularra Paueko Unibertsitatean.

Ez du inoiz parte hartu ezein lehiaketatan, baina sari bat jaso du: 1997ko Beterri saria *Gauak eta hiriak* eleberriagatik.

Besteak beste, *Maiatz*, *Hegats*, *Egan*, *Uztaro*, *Euskaldunon Egunkaria* eta *Garan* argitaratu ditu idazlanak, artikulu kritikoak nahiz iritzi zutabeak.

Arlo akademikoan, Pariseko L'Harmattan argitaletxeak 2000n argitaratutako *La Naissance de l'écrivain basque* (Euskal idazlearen sorrera) ikerlanaren egilea da.

Utrisque Vasconiae argitaletxearen baitan Kritika Literarioa izeneko saila zuzentzen du eta *Egunero irakurtzen delako* literatur sailaren kudeaketan ere esku hartzen du.

Argitara emandako lanen artean daude, besteak beste, *Erdi guneak* (*Maiatz*, 1995), *Gauak eta hiriak* (Elkar, 1997), *Las relaciones imperfectas* (Hiru, 2001), *Gure gauzak S.A.* (Utrisque Vasconiae, 2004) eta *Belaunaldi literarioak auzitan* (Utrisque Vasconie, 2005).



# Idazlearen anaia, alaba eta ama. Gogoeta euskal literaturaren tabu fundatzaileaz

## Ur Apalategi

Gero eta komentzituago nago literatur tradizio bat sortu, garatu, zahartu eta hil egiten dela eta, hortaz, metafora antropomorfikoa dela egokiena bere bilakaeraren berri emateko. Jakina denez, gizaki bat desiraren ala amodioaren fruitu da: ama, aita, haurra. Horra osaturik hiruki psikoanalitiko eta berari hertsiki lotuta datorren debeku fundatzailea: intzestuarena, bereziki amarekiko intzestuarena. Uhartetatik hitza ekarri zigun James Cook nabigatzailearen arabera, tabua unki ezin daitekeena da. Ama desira dezakezu –desiratuko duzu–, baina unkitu gabe. Bestela ez zara heldutasunera iritsiko, ez zara nor izatera iritsiko (Freud), bestela ez dago gizartea eratzerik (Lévi-Strauss).

Baina nor da nor literaturaren bilakaeraren berri emateko erabili gogo dugun metafora psikoanalitiko honetan? Nor aita, nor ama, nor haurra? Demagun XVI. mendean gaudela, Europa naziotan zatitzen hasi den unean. Beñat Etxepare izeneko apaiz poeta batek dei egiten die inguruetako jauntxo eta handikiei baserri eder bat eraikitzeko. Baserri hori euskara da, hots, euskaldun egiten gaituena, naziotasunaren esentzia den hizkuntza. Apaiz-poetaren deia ez da entzuna izanen XIX. mendearen ondarra arte. Alegia, harik eta jauntxo politikari batek, Sabino Aranak, baserri horren lehen harriak jarriko dituen arte. Gehi dezagun, bidenabar, euskal nazionalismoaren sortzaile burgesa euskara baino ez zekien baserritarsa analfabeto batekin ezkondu zela bere fede politikoa nolabait gorpuztearren. Politikariak euskara izorra jartzen duenean sortzen da beraz euskal nazioa... poeta-apaiz inpotentearen deiari erantzunez! Beste modu batera esatearren, literatura eta politika bi anaia dira, euskara deritzon lurrean euskal nazioa deitzen den

baserria eraikiko dutenak, lehenak lurra hitzen bitartez erotizatuz, bigarrenak, lehenaren hitzek beroturik, bere indar falikoaz lur hori emankor bihurtuko duen bitartean. Ez gaude urruti Cyrano de Bergerac-en mitotik, ikusten denez, eta literaturari dagokio Cyranoren papera betetzea.

Literatura nazional baten adin horretan (deskribatu berri dudan kontzepzio aroaz ari naiz, jakina) gerta daiteke, eta maiz gertatzen da, idazlea eta politikaria bat bera izatea fisikoki. Euskal Herrian, esaterako, ohargarria da nazionalismoaren edota protonazionalismoaren hiru lehen teorizatzaileak –Larramendi, Chaho eta Arana– euskal literaturaren edozein historiatan agertzen direla.

Hortik aurrera, gauza bitxi bat gertatzen da. Idazlearen anbizio aitorrezina panteoi nazionalen sartzeara bada, are gutxiago aitor dezake bera dela nazio horren sortzaileetarik bat. Tenploa eraiki eta bertako jainko bihurtu nahi izatea litzateke hori. Egia hutsa (hori baita idazle orenen desira inkontzientea), baina guztiz aitorrezina. Beraz, nazioaren egiazko jatorria ezkutatzea beste erremediorik ez zaie gelditzen bi anaiei. Horretarako idazten dute biek ala biek kondaira edo mito nazionala. Mito horretan, iraulketa ikusgarri baten ondorioz, euskal nazioa, nahiz eta euskara den ama-lurra fekundatuz izandako bi anaien alaba izan, beraien ama bihurtzen da bat-batean. Ama perfektua, ama idealizatua, guztiaren sorburu den ama orbangabea. Beraien pretensioak –idazlearen kasuan, esan bezala panteoiratzea, politikariarenean, berriz, boterea eskuratzea– zilegizatzen dituen ama. Eta bi anaiak ama berriaren seme leial eta egiazkoak bilakaturik ikusten ditugu, zein baino zein txintxoago, ideologikoki ortodoxoago. Horra literaturaren haurtzaroa. Hemen ere, askotan dira berberak idazlea eta politikaria: Lizardi olerkari gorenaren Gipuzkoa Buru Batzarreko idazkaria izan zen, Lauaxeta modernista besteak beste EAJko militante berrien formatzaile, etabar. Ama Euskal Herriaren fereka bilatzen duten haur guapoak dira idazle hauek, igandeko jantziak soinean dituztela (gorbata eta guzti), modernismoaren etxeko-lanak eginda, eta euskaldun fededunaren otoitza ahoan dutela gehienetan (nahiz eta ez beti sinetsi, Lauaxetaren kasuan bezala).

Urteak etorri, urteak joan, literaturari eta politikagintzari bizar fin bat atera zaie eta ama Euskal Herria begi berri batzuek begiratzen hasi dira, desirak bustitako begiradaz hain zuzen. Oilarkerien aroan sartu gara, nerabezaroan. Elkarri eskua emanda bizi izan zirenak hasi dira muturtzen. Politikariak nazioaren arreta bereganatu nahi luke eta idazleak ez du asmorik atzeratuta gelditzeko leia intzestuosu horretan. Frankismoa bere fase dekadentean sartua da eta aldaketen itxaropenak bi nerabeon

hormonak dantzan jarri ditu. Ordu hartakoak dira euskal idazleen heterodoxiak. EAJren nazionalismoari epela iritzi eta nazionalismo beroagoa, eroagoa, ausartagoa, anitzagoa, erradikalagoa sortuko da Mirande, Krutwig, Txillardegi eta beste batzuen lumetatik. Ama seduzitzeko azken saio inkontzientea. Nerabea atentzioa deitzen saiatzen da orrazkera bitxiena asmatuz, bere gelako paretak afitxa arraroenez estaliz, bere ahoa blasfemaz apainduz. Bera da, noski, ama Euskal Herria hobetoen ulertzen eta defenditzen duena, anaia politikari demokrata-kristau epelak baino askoz hobeto behintzat. Garai euforikoa da nerabezaroarena, dudarik gabe, eta euskal idazlea pozarren dabil frankismoaren aurkako gerla horretan murgilduta, abertzaletasunaren abangoardia dela jakiteak ematen dion kemenak puztuta. Anaia politikariak ere onartu beharra dauka idazleraren, poetaren, kantariaren beharra duela bere mitinak arrakastatsuak izan daitezen. Badirudi nazioak idazlea daukala seme kuttuntzat.

Orduan dator, baina, istorio honetako unerik dramatikoena. Frankismoa erori eta sistema demokratikoa abian jartzen denean, ama Euskal Herriak seme idazleari bizkarra eman eta politikariari baserriaren ardura eta jabetza ematea erabakitzen du, anaia idazlea izan arren premua. Politikaria profesionaltzen da, diskurtso nazionalistaren monopolioa bereganatuz, hauteskundeek ematen dioten zilegitasuna baliatuz eta anaia idazlea, anaia kantaria, mitinetara gonbidatzeari uzten dio pixkanaka. Antza, telebistako iragarkiei euskal poeten kantuei baino eraginkorrago deritze botere eskuratu berrian mantentzeko. Baserriak jabe bakarra dauka eta idazleari aukera bakarra geratzen zaio: baserrian anaiaren morroi gelditzea, ala baserritik alde egitea.

Idazle batzuek etxean gelditzea erabakitzen dute, anaia politikariaren aurkako erresistentzia marmarti erradikal batean sartuz, betirako mutilzahartuta. Beste batzuk, gaztetasunak ematen duen kemena eta inkontzientzia lagun dutelarik baserritik urrundu eta autonomia bila hasiko dira. Baina ez behialako Unamuno hura bezala euskal lurrari antzua iritzi eta baserria eraikitzeari uko eginez, lur emankorragoen bila joateko. Ez, idazle gazte hauentzat baserria jadanik eraikita dago, anaiak bereganatuta gainera, eta gutuziagai izaten jarraitzen du. Baina panteoi nazionalera sartzeko zeharkako bide bat asmatu beharra dago, aurreko atetik sartzetik ez baitago anaia politikariak sarrailek jarri dituenetik. Baserriari asaltoa modu inoiz erabili gabean egingo dio beraz autonomiaren belaunaldia deritzonak: *euskarazko literatura ez abertzalea* eginez eta *literaturtasuna* bihurtuz jomuga bakar. Eta modu paradoxal honetan lortuko du idazle belaunaldi honek panteoi na-

zionalean sartzea, hain zuzen abertzaletasunaren tabua edo debekua ezarriz literatur eremuan. Paradoxa, itxuraz, baina logika psikoanalitikotik guztiz ulergarria. Literaturak heldutasunera iristeko, nor izateko, indarrean ezarri beharra baitzeukan amarekiko intzestuaren tabua.

Lévi-Strauss-ek dio debekuak ez direla debekatutakoaren berezko ezaugarrietatik eratoritzen, baizik eta adierazpen sistema batean duen kokapenetik. Beste era batera esateko, debekuak signifkazioa adierazteko baliabideak baino ez dira. Horregatik, euskal literatura helduak praktikatzen duen abertzaletasunaren denegazioa ez da bere balio intrinsekoaren arabera ulertu behar, baizik eta signifkazio bat adierazteko balio duen ekintza gisa: literaturtasuna adierazteko abertzaletasuna arbuiaitu behar da. Abertzaletasunaren arbuioa literaturtasunaren ikur bat da, ikur nagusia. Baina, eta horretan datza paradoxa, literaturtasuna, ororen buru, nazioari egindako opari bat da, semeak amari egin diezaiokeen opari handiena beste emazte batekin ezkondu eta zoriontsu izatea den moduan. Zeren, funtsean, eta hau da idazle orok bere buruari ezkututzen dion egia sakon eta tabua, literatura baita nazioaren jatorria, iturburua. Ez gaitu harrituko, hortaz, beti «ez abertzale» gisa agertu den Bernardo Atxaga bihurtu izana gure literatura nazionalaren ikur nagusi. Saizarbitoriak dioen bezala idazlea aberriaren alde eta kontra dago, aldi berean. Bikoiztasun horrek darama literatura heldutasunera.

Tabu fundazionala eraikita dago orain eta euskal literatura aro postnazionalistan sartu da, kontsumoaren aroan. Orduantxe egiten du bere agerpena emakume idazleak euskal literaturan, barne borroka edipiarrek odolhusturik utzi duen anaia tragikoaren erreleboa naturaltasun osoaz hartuz. Euskal literatura emakumeek irakurtzen dute nagusiki eta emakumeak ez badira idazle arrakastatsu bakarrak esan dezakegu idazle gizonak beraien idazkera feminizatu egin dutela egoera berrira moldatzeko. Baserri nazionalak anaia politikariaren esku darrai eta nebarreba idazleek onartu dute nolabaiteko erbestean bizi beharko direla panteoiratu bitartean, periferian. Arreba idazlea da hobetoen asumitu duena periferikotasun hori eta apartamentutxo bat bilatu, erosi eta apaindu du neba eta biok bertan bizi daitezen aurrerantzean. Euskal literaturaren egunerokotasuna femininoa da. Neba zauritua ez da gehiegi ateratzen apartamendutik. Noizbehinka, autonomizatzearen garai heroikoak oroitu nahiz edo, tabua nola ezarri zuen indarrean oroitzera datorren nobelatzar bat idazten du, lehoi zaharraren orroea baillitzan, eta nobela hori *Hamaika Pauso* deituko da, ala *Gizona bere bakardadean*.

Istoriaa bukatutzat eman liteke puntu honetara helduta, baina badu segida bat. Izan ere, heldutasunera iristean, amarekiko lotura moztu ostean, norengana jo dezake idazleak ? Ideala, noski, unibertsaltasunarekin ezkontzea litzateke, eta literaturtasuna hori lortzeko armarik seguruen da, zer duda. Baina, arazoa zera da, literatura txikietan ez dagoela unibertsaltasunarekin lotura zuzena lortzerik, unibertsaltasunak inglesa, frantsesa, gaztelania, eta beste bospasei hizkuntza baino ez duelako ulertzen. Bitartekari baten laguntza behar du literatura txikietako idazleak, itzulpenaren laguntza alegia. Hizkuntza unibertsalak baitaude mundu honetan... eta besteak. Nahitaez hizkuntza handi hauetako batera itzulia izan behar du nazio txikietako idazleak, unibertsaltasunarekin ezkondu nahi badu. Eta, jakina, honek esan nahi du hizkuntza horren literatur tradizioari zerga bat ordaintzen zaiola gehienetan. Zeren ardurena nazio txikietako idazlea elebiduna baita (alegia, hizkuntza handi hori ezagutzen du, gai da hizkuntza horretan idazteko –ai tentazioa!) eta berak egiten ditu bere obren itzulpenak. Hor daukagu guk Atxagaren kasua, zeinak aitortu baitzuen orain dela urte batzuk euskaraz idazten jarraitzeko arrazoi bila zebilela, ikusirik erosoagoa zela erdal munduan ibiltzea, beroagoa erdal irakurleen harrera. Badakizue zer den, etxeko semea errainaren familia aberatsagoan ongi tratatzen dutenean gutxiago ikusi ohi dute burasok. Baina arazo domestiko txiki hauek tabu fundazionalaren arazotik haratago daude, helduon eguneroko liskartxo familia barnekoak baino ez dira.